

Banaketa eta salmenta kanala: Banaketa eta salmenta kanala bezeroarengana nola ailegatu dadin gure enpresa nola komunikatzen den eta bere merkatu segmentutaraino nola irizten den azaltzen duen Canvas metodoaren atal bat da. Gure enpresak erabiliko duen kanala zuzena eta propioa izango da, bitartekaririk gabekoa. Gure produktuaren banaketa jendearen harreraren arabera izango da, hau da, gure produktua Euskal Herriko denda batzuetan saltzen hasiko gara, horrela erosleen gustukoa den jakingo dugu. Merkatuan harrera ona izango balu, Euskal Herriko denda guztietara bidaliko ditugu eta, harrera oso onarekin, Espainiara eta, baliteke, beste estatu batzuetara. Gure banaketak garraioz eginda egongo dira (kamioiz, furgonetaz, etab.) Gure produktua denda fisikoetara bidali arren, gure geure denda digital bat sortuko dugu hor, interneten bidez, gure produktua saltzeko.